

## CONCURSO DE FOTOGRAFÍA "¿ELLA, ÉL?...MEJOR AMBOS " PACTO LOCAL POR LA CONCILIACIÓN DE ESTELLA-LIZARRA

### BASES

**Organiza:** Pacto local por la conciliación de de Estella-Lizarra.

**Objetivo:** Sensibilizar en la corresponsabilidad y la igualdad de responsabilidades. Reflejar Padres-hombres y familias corresponsables y la importancia del cuidado.

**Participantes:** Podrán participar todas las personas que lo deseen, mayor de 8 años, con un máximo de tres fotografías inéditas.

**Tema:** Situaciones de la vida cotidiana que reflejen discriminación y/o igualdad entre mujeres y hombres. La conciliación de la vida personal, familiar y laboral. Corresponsabilidad.

**Criterios de Valoración:** Los criterios de valoración de los trabajos presentados serán:

- 1.- El contenido de la obra y la relación con el tema propuesto
- 2.- Calidad fotográfica
- 3.- Originalidad

#### Características técnicas de las fotografías:

- Podrán presentarse a concurso fotografías en blanco y negro o color.
- La fotografía tendrán un tamaño mínimo 18 x 30 cm y máximo 30 x 45 cm.
- No podrán presentarse cubiertas de plástico o papel.
- No deberán ir montadas ni reforzadas sobre cartulina, ni con "passe-partout". Tampoco podrán presentarse enrolladas y deberán enviarse debidamente protegidas.
- Las obras deben ser presentadas exclusivamente en papel, no se admitirán transparencias ni reproducciones.
- Cada persona podrá presentar un máximo de tres fotografías.
- Las fotografías presentadas deberán ser originales e inéditas y no haber sido premiadas con anterioridad en ningún concurso o certamen, ni haber sido expuestas, publicadas ni difundidas por cualquier otro medio.
- Las personas participantes se responsabilizan totalmente de que no existan derechos de terceros y también de toda reclamación por derechos de imagen.

**Plazo y lugar de presentación:** Se entregaran en el Ayuntamiento de Estella-Lizarra, en el Área de Igualdad y Mujer, desde el 19 de marzo hasta las 13:00h. del día **15 de abril de 2013** (Paseo Inmaculada, 1. 31200 Estella-Lizarra, Navarra).

**Forma de presentación:** Se entregarán en sobre cerrado, en el que se detallen el título de la fotografía y la frase "Concurso de fotografía". Dentro figurará la fotografía y otro sobre cerrado que contenga en su interior los datos personales del/la participante (nombre, apellidos, edad, dirección y teléfono), y en exterior el título de obra.

### Exposición y propiedad de las fotografías:

- Un mismo autor o autora no podrá recibir más de un premio.
- Los premios podrán declararse desiertos si así lo considera el jurado.
- Los personas autores de las fotografías seleccionadas y ganadoras cederán temporalmente los derechos de reproducción con el único objetivo de realizar una exposición, en un lugar todavía sin determinar que tendrá lugar durante todos los meses de junio y julio de 2013 y de la promoción del concurso en su edición actual.
- En ningún caso se cederán a terceros y/o se realizará otro uso de estas sin la autorización expresa de sus autores/as. Los/as autores/as de las obras fotográficas premiadas continuarán siendo los y las titulares de los derechos de explotación de las mismas. El nombre del autor/a aparecerá publicado junto a su obra.
- Las fotografías no premiadas podrán retirarse una vez finalizada la exposición (no se enviarán por correo).

**Jurado:** Estará compuesto por personas del pacto local por la conciliación de Estella-Lizarra, asesoradas por profesionales de la fotografía y técnicas de Igualdad.

**Fallo del jurado:** El 16 de abril de 2013 y su decisión será inapelable. El resultado se hará público en los medios de comunicación. A los autores premiados se les comunicará telefónicamente el fallo.

**Premios:** Se establecen los siguientes premios:

Categoría A: Cámara de fotos

Categoría B: 100€

Pueden existir menciones especiales: Para persona de Estella-Lizarra, foto captación instantánea...

**Entrega de premios:** El día 19 de abril de 2013, en el Ayuntamiento de Estella-Lizarra.

**Aceptación e interpretación de las bases:** La participación en el concurso implica la aceptación de las bases y de las decisiones que se adopten por el jurado del concurso.



**ARGAZKI LEHIAKETA "EMAKUMEA, GIZONA? BIAK!"**  
**ESTELLA-LIZARRAKO BIZITZA, LANA ETA FAMILIAKO EGINKIZUNAK**  
**BATERATZEKO TOKIAN TOKIKO ITUNA**

## OINARRIAK

**Antolatzailea:** Estella-Lizarrako bizitza, lana eta familiako eginkizunak bateratzeko tokian tokiko ituna.

**Xedea:** Erantzukizunean eta arduren berdintasunean sentsibilizatzea. Aita-gizonak eta familia erantzunkideak islatzea, baita zainketaren garrantzia ere.

**Lehiakideak:** Nahi duen lagun orok har dezake parte, 8 urte baino gehiago izanez gero. Lehiakide bakoitzak gehienez ere hiru argazki argitaragabeak aurkeztuko ditu.

**Gaia:** Emakumezkoen eta gizonzkoen artean bazterkeria edo berdintasuna islatzen dituzten eguneroko egoerak. Bizitza, lana eta familiako eginkizunak bateratzeko egoerak. Erantzukizuna.

**Baloratzeko irizpideak:** Aurkeztutako lanak baloratzeko honako irizpide hauek jarraituko dira:

- 1.- Obraren edukia eta horren harremana proposaturiko gaiarekin
- 2.- Argazkiaren kalitatea
- 3.- Originaltasuna.

**Argazkien ezaugarri teknikoak:**

- Lehiaketara zuri-beltzezko edo kolorezko argazkiak aurkeztu ahal dira.
- Argazkien neurriak: gutxienez 18 x 30 cm eta gehienez 30 x 45 cm.
- Ezin izanen dira plastikoz edo paperez estalita aurkeztu.
- Ezin izanen dira kartoi mehearen gainean aurkeztu edota horrekin sendotu, ezta "passepartou" erabili ere. Ezta ere kiribildurik aurkeztu, eta behar bezala babesturik bidali beharko dira.
- Obrak soilik paperean aurkeztuko dira, ez da gardenkirik ezta kopiarik onartuko.
- Lagun bakoitzak gehienez ere hiru argazki aurkez ditzake.
- Aurkeztu diren argazkiak jatorrizkoak eta argitaragabeak izanen dira eta ez da onartuko lehenago lehiaketaren batean saririk jaso duen lanik, ezta lehenago erakutsiak, argitaratuak eta edozein euskarriren bidez hedatu direnak ere.
- Parte-hartzaileek erabateko ardura hartuko dute ziurtatzeko ez daudela hirugarrenen eskubiderik, ezta erreklamaziorik ere irudi-eskubideak direla eta.

**Aurkezteko epea eta lekua:** Estella-Lizarrako Udaletxean, Berdintasun eta Emakume Bulegoan, 2013ko martxoaren 19tik **apirilaren 15era**, 13,00ak arte (Sorkunde Garbiaren pasealekua, 1. 31200 Estella-Lizarra, Nafarroa).

**Nola aurkeztu:** Argazkiak kartazal itxi batean aurkeztuko dira. Bertan idatziko dira argazkiaren titulua eta "Argazki lehiaketa" esaldia. Barnean

argazkia eta bigarren kartazal bat sartuko dira. Bigarren kartazalean argazkiaren titulua idatziko da eta egilearen datu pertsonalak sartuko dira: izen-abizenak, adina, helbidea eta telefonoa.

### **Argazkien erakusketa eta jabetza:**

- Egile bakar batek ezin izanen du sari bat baino gehiago eskuratu.
- Sariak eman gabe gera daitezke epaimahaiak horrela erabakitzen badu.
- Hautaturiko edo saritutako argazkien egileek erreproduzitzeko eskubideak aldi baterako utziko dituzte, erakusketa bat egiteko asmoz, oraindik zehazteke dagoen tokian, hori 2013ko ekaina eta uztaila hileen barna eta lehiaketa sustatzeko aurtengo edizioan.
- Ez dira, inola ere, hirugarrenei utziko edo/eta beste erabilerarik egin egileen baimen zehatzik gabe. Saritutako argazkien egileek segituko dute ustiapen-eskubideen jabe izanen. Egilearen izena bere obraren ondoan agertuko da argitaratua.
- Sari gabeko argazkiak hartu ahal izanen dira erakusketa bukatu ondoren (ez dira postaz bidaliko).

**Epaimahaia:** Estella-Lizarrako bizitza, lana eta familiako eginkizunak bateratzeko tokian tokiko itunaren lagunak osatuko dute. Aholkua emanen diete argazkilari profesionalek eta berdintasun teknikariek.

**Epaimahaiaren erabakia:** 2013ko apirilaren 16an. Epaimahaiaren erabakia apelaezina izanen da eta hedabideetan emanen da horren berri. Saritutako egileei telefonoz jakinaraziko zaie.

**Sariak:** Honako sari hauek emanen dira:

A Kategoria: Argazki makina

B Kategoria: 100 euro

Halaber, aipamen bereziak egon daitezke: Estella-Lizarrako pertsonarentzat, bat-bateko argazkirako...

**Sarien emanaldia:** 2013ko apirilaren 19an, Estella-Lizarrako Udaletxean.

**Araua onartu eta interpretatu:** Lehiaketan esku hartzeak arauak onartzea dakar berez, baita epaimahaiak horien gainean hartuko dituen erabakiak ere.



COMISION DE LA MUJER  
LIZARRAKO UDALAREN  
DEL AYUNTAMIENTO  
DE LA MUJER  
DE ESTELLA  
BATZORDEA  
Pº Inmaculada, 1

